BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2476

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 4koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinen bidez ebazten baita garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioetarako estrategia markoen finantziazio-lerroko laguntzak ematea.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak arautzen ditu garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzak, eta bi ekintza-mota bereizten ditu. Batetik, larrialdietarako laguntza-proiektuak, bizirautea bermatzeko eta hondamendien eraginpeko pertsonen sufrimendua arintzeko oinarrizko ondasun eta zerbitzuak urgentziaz ematera bideratuak, eta, bestetik, ekintza humanitarioko proiektuak, zentzu zabalagoan, zeinen ekintzek beharrizan-maila txikiagoa baitute eta zeinen helburua garapenerako, giza eskubideetarako eta bakea eraikitzeko oinarriak sustatzea baita.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2014ko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez (2014ko urtarrilaren 31ko EHAA, 121. zk.), garapenerako lankidetzaren kontura ekintza humanitarioetarako 2014. urterako laguntzak iragarri ziren: 1.600.000 euro, finantziazio-lerro iraunkorrerako, eta 2.000.000 euro, ekintza humanitarioko estrategia markoen finantziazio-lerrorako (% 50, 2014. urtean ordaintzeko, eta beste % 50a, 2015. urtean).

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak arautzen ditu garapenerako lankidetzaren kontura ekintza humanitarioetarako laguntzak; bada, dekretu horren 28. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera, jasotako eskabideak baloratuko dira, eta puntuaziorik handiena lortu dutenak suertatuko dira onuradun, finantziazio-lerro honen zuzkidura agortu arte, betiere.

Aipatu dekretuaren 4. artikuluan xedatzen denez, laguntzen deialdia urtero iragarriko da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu baten bidez. Kasu honetan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen agintaritza, bi dekretu hauek aplikatuta: lehendakariaren 20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena, eta 187/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituena. Laguntza horiek kudeatzea eta eman beharreko ebazpenak ematea, aldiz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren eskumena da.

Balorazio- eta instrukzio-prozesua amaitu eta gero, eta 2014ko maiatzaren 8an bildu zen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artezkaritza-kontseiluaren proposamenez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuan araututako eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2014ko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez iragarritako estrategia markoen finantziazio-lerroko laguntzak ematea ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei; bertan adierazten dira zenbatekoak eta baldintzak.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri diren eskabideak ezestea, aurrekontu-kreditu eskasiagatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean jasotako eskabideak deialditik kanpo uztea, bertan zehazten diren arrazoiak tarteko.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 4a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK - EHE-2014

Espediente-zk.	Erakunde eskatzailea	Proposamenaren izenburua	Herrialdea/eremu geografikoa	Diru-laguntza
EHE-2014BA/0004	Fundación Alboan	Colombia y sus fronteras: consolidación del trabajo de acción humanitaria en contextos de desplazamiento forzado y violencia.	Kolonbia / Venezuela	799.705,75 €.
EHE-2014BA/0005	Asociación ACNUR Euskal Batzordea	Integración de Desplazados Internos: lucha contra la violencia sexual y la discriminación socio-económica de las mujeres en la República Democrática de Congo (RDC).	Kongoko Errepublika Demokratikoa	602.276,25 €.
EHE-2014BA/0008	Asociación UNRWA Euskadi	Estrategias de empoderamiento para reducir la vulnerabilidad de las mujeres gazatíes.	Palestina	598.018,00 €.

II. ERANSKINA

EZETSITAKO ESKABIDEAK EHE-2014

Espediente-zk.	Erakunde eskatzailea	Proposamenaren izenburua	Herrialdea/eremu geografikoa	Ezesteko arrazoia
EHE-2014BA/0003	Fundación Oxfam Intermon	Noumenm (nosotros y vosotros): reduciendo el riesgo de las personas más vulnerables con enfoque de protección y construcción de residencia en la provincia de Bahoruco, República Dominicana.	Dominikar Errepublika	Funtsak agortzea
EHE-2014BA/0007	Fundación UNICEF Comité del País Vasco	Aumento del tratamiento integrado para la desnutrición aguda y la prevención de la desnutrición en las regiones del sur de Malí.	Mali	Funtsak agortzea

III. ERANSKINA

KANPO UTZITAKO ESKABIDEAK EHE-2014

Espediente-zk.	Erakunde eskatzailea	Proposamenaren izenburua	Herrialdea/eremu geografikoa	Kanpo uzteko arrazoia
EHE-2014BA/0001	Médicos Sin Fronteras	Reducción de la mortalidad y la morbilidad en niños y niñas menores de 5 años afectados/as por DAS en los distritos de Bouza y Madaoua, Níger.	Nigeria	Proiektua kanpo utzi da 31/2008 Dekretuaren 9.1.b) artikuluko baldintzak ez betetzeagatik.
EHE-2014BA/0002	Médicos Sin Fronteras	Salud comunitaria, primaria y secundaria para la población desplazada en Pamat, Norte Bahr, El Ghazal, Sudán del Sur.	Sudan	Proiektua kanpo utzi da 31/2008 Dekretuaren 9.1.b) artikuluko baldintzak ez betetzeagatik.
EHE-2014BA/0006	Fundación Save The Children	Apoyo a las familias refugiadas y a las familias vulnerables de Trípoli en Líbano, a través de la mejora de las infraestructuras físicas, protección y servicios de referencia.	Libano	Proiektua kanpo utzi da 31/2008 Dekretuaren 9.1.b) artikuluko baldintzak ez betetzeagatik.